

Eskola ariketa 3

zuzenketa


1. Bikoteka lan eginez, ondorengo hitz elkartuak aintzat hartu...

jesarleku, izen-deitura, musika-talde, amesgaizto, ilegorri, jantoki, begihandi, irakurgela, gidabaimen, gramatika-kategoria, sugedorri, suhiltzaile, gormutu, paperontzi, harribitxi, herri bazkari


eta, hitz elkartu bakoitzari buruz, hauxe zehaztu ezazue:

- (a) zein motatakoa den, arrazoia labur emanaz;
- (b) zein osagai den ardatza, ardatzik baldin badago;
- (c) zeintzuk diren osagaiak eta zein osagai bakoitzaren kategoria;
- (d) zein kategoria duen hitz elkartu osoak;


☞ Inportantea! (a-b) ataletan justifikatu egin behar duzu erantzuna ... 😊



- a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *jesarri-k leku* mugatzen du-eta (*jesartzeko leku* esan nahi du).
- b. Ardatza *leku* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, *jesarleku leku* mota bat da.




- a. Kopulatiboa da hitz elkartu hau, *izen eta deitura* esan nahi du hitz elkartuak.
- b. Ardatzik ez dago; kopulatiboetan osagai biak daude mailera berean, juntaduran bezala.




- a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *musika-k talde* mugatzen du-eta (*musikako talde* esan nahi du).

b. Ardatza *talde* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, musika talde talde tankera bat da.




a. Justaposiziozkoa da hitz elkartu hau, elipsirik gabea. Besterik gabe, I+Adj joskera bat kontzeptu berri bat izendatzeko berziklatu da.

b. Ardatza *amets* izena da; justaposiziozkoetan kategoria erabakitzen duen osagaia izaten da ardatza; hemen *amets* izena delako da *amesgaizto* hitz elkartua izena.




a. Posesiboa da hitz elkartu hau, *ile gorria duena* (edo *ile gorria duenaren ezaugarria*) esan nahi du.

b. Ardatzik ez dago, posesibo eta exozentrikoetan ardatzik ez dagoelako definizioz.




a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *jan-ek toki* mugatzen du-eta (*jateko toki* esan nahi du).

b. Ardatza *toki* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, *jantoki* toki mota bat da.




a. Posesiboa da hitz elkartu hau, *begi handia duen txipiroi mota* (izena) edo *begi handia duenaren ezaugarria* (adjektiboa) esan nahi du.

b. Ardatzik ez dago, posesibo eta exozentrikoetan ardatzik ez dagoelako definizioz.




a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *irakurri-k gela* mugatzen du-eta (*irakurtzeko gela* esan nahi du).

b. Ardatza *gela* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, irakurgela gela berezi bat da.




a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *gidatu-k baimen* mugatzen du-eta (*gidatzeko baimen* esan nahi du).

b. Ardatza *baimen* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, gidabaimen baimen berezia da.




a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *gramatika-k kategoria* mugatzen du-eta (*gramatikaren kategoria* esan nahi du).

b. Ardatza *kategoria* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, gramatika kategoria kategorietariko bat da.




a. Justaposiziozkoa da hitz elkartu hau, elipsirik gabea. Besterik gabe, I+Adj joskera bat kontzeptu berri bat izendatzeko erabili edo berziklatu da.

b. Ardatza *suge* izena da; justaposiziozkoetan kategoria erabakitzen duen osagaia izaten da ardatza; hemen *suge* izena delako da *sugegorri* hitz elkartua izena (eta are gehiago: *sugegorri suge* mota berezi bat da, *vipera berus* izenekoa).




a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *su-k hiltzaile* mugatzen du-eta (*suaren hiltzaile* esan nahi du). Sintetikoa ere bada, *sua hil* (osagarri zuzena + aditza) egiten duena adierazten baitu.


b. Ardatza *hiltzaile* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza.




- a. Kopulatiboa da hitz elkartu hau, gor *eta* mutu dena esan nahi du hitz elkartuak.
- b. Ardatzik ez dago; kopulatiboetan osagai biak daude mailera berean, juntaduran bezala.



- a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *paper*-ek *ontzi* mugatzen du-eta (*papererako ontzi* esan nahi du).
- b. Ardatza *ontzi* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, paperontzi ontzi tankera bat da.



- a. Justaposiziozkoa da hitz elkartu hau, elipsirik gabea. Besterik gabe, I+Adj joskera bat kontzeptu berri bat izendatzeko erabili da.
- b. Ardatza *harri* izena da; justaposiziozkoetan kategoria erabakitzen duen osagaia izaten da ardatza; hemen *harri* izena delako da *harribitxi* hitz elkartua izena (eta are gehiago: harribitxi harri mota berezi bat da).



- a. Mendekotasunezkoa da hitz elkartu hau, *herri*-k *bazkari* mugatzen du-eta (*herriko bazkari* esan nahi du).
- b. Ardatza *bazkari* izena da; mendekotasunezkoetan eskuineko osagaia izaten da ardatza eta, gainera, herri bazkari bazkari bat da, bazkarien arteko sailkapenak egiteko erabiltzen da.

2. Hona hemen aurreko urteetako ikasleek beren auzo, herri, baserri eta ingurutik ekarritako leku-izenen adibideak, denak hitz elkartuak direnak. Multzoka ipini adibide guztiak hitz elkartu motaren arabera:

Justaposiziozkoak:

Aizkorri (haitz + gorri), Bordatxuri (borda + zuri), Errekaxiki (erreak + txiki), Hiriberri/Uribarri (hiri/uri + berri), Goiko Kale

Mendekotasunezkoak:

Atzerreka (atze + erreka) , Egurbide (egur + bide), Goietxia (goi + etxe)